

EUSKAL JAIA

Beste Euskal jai bat ospatzeko aukera izan dugu ermuarrok, dagoeneko XIX.a; aukera diot, hasieran euskaldun guztiok jaiaren parte hartzen bagenuen ere, azken urte hauetan "paso" egiten dugulako, edo behintzat, data hori ez da guretzat erreferentzi bat. Esan behar da sekula baino aurrekontu handiago eta erraztasun gehiago dagoela; dena dela, antolatzaileek erreflexionatu egin beharko lukete jai honi bultzadaxo bat emateko. Izan ere, aipaturiko erreztasunak direla medio, herri osoarekin, haur, gazte eta zaharrekinekin konektatuko lukeen programa bat egin beharko litzateke.

Euskal Herrira txirrindulari lasterketek ura ekartzen badute ere, Ermuan dantzariak dira horretaz arduratzen direnak. Honela zirudien Euskal Jaiaren bezperan, plazan antolatu behar ziren dantza solte txapelketa, herri afaria eta erromeria Batzokian egin behar izan zituztenean. Bikote asko etorri zen Ermura lehiaketa honetan parte hartzera, bederatzi hain zuzen. Ikuslegoa, aldiz, nahiko murrizta izan zen, gehienak dantzarien senidekoak izan baitziren. Gabeko afaria eta "Lotxo" taldeak animaturiko erromeriak, indarberritu zituen antolatzaileak hurrengo egunean egin beharreko lan haundiaren aurrean. Igandean euriak plan guztiak aldaraziko zituen zalantzarekin oheratu ziren jaiaren arduradunak.

Esnagailuak jo, jaiki eta zuzenean leihora, hori izaten baita Euskal Jai egunetako lehen lana. Oraingoan bai,



Bildutako dantza eta dantzari ugari eta ezberdinak

SANTOS VEGA

gosariari umore onez heltzeko arrazoia zegoen, eguzki printzeak sukaldaraino sartzen ziren. Hodei bakar batzu ageri ziren, baina euria ez zen ausartuko.

Soziedadeetako sukaldariek berehala ekin zioten euren urteroko lanari, hauen laguntzaren ezean, ezinezkoa izango baitzen Hego Euskal Herriatik datozen 23 dantza taldeak ekartzea. Antolatzaileen ardura izan beharko litzateke hurrengo urteetan Iparraldeko ordezkariak ere ekartzea. Baina horretarako fetxaren aukeraketa aldatu behar da, aurtan "Herri Urratsa" rekin bat egin baitzuen. Dantzak bai, Euskal Herri osoko dantzak ikusteko aukera izan genuen, Zuberoko Maskaradarenak barne, espektakuloa benetan ederra izan zen.

Aurreko urteetan egin izan den bezala, txaranga bat ekarri zuten antolatzaileek egunari azkenengo alaitasun ikutua emateko asmotan. Baina oraingoan jendea ez zela animatu aitortu behar da. Eta artikulua honen hasierako hariari jarraituz, aurtengo Euskal Jaiak herriaren partaidetzaren falta izan du. Azken urteetako programa egiteaz arduratu direnak, badute erreflexionatzeko puntu bat. Programa erakargarriagoa egin behar da, agian hainbat ekintza aldatu, jendearen partaidetza bultzatu eta Euskal Jaia, benetako jai euskalduna bihurtu. Zuk ere bai, irakurle, agian badaukazu ideien bat. Ez al da horrela?

Gaizka Areitioaurtena

**DIETETIKA
ZENTROA**



Izelaieta, 10 eta
Merkatu Plazan
Tfnok: 17 02 13
(Etxekoa) 17 01 52

HERBODIETETIKA
SENDABELARRAK



KOSMETIKA NATURALA
ERREGIMENEN ELIKAGAIK

**TXALAPARTA
TABERNA**

Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun



- LENGOAIA MUSIKALA
- PIANO
- AKORDEOIA
- FLAUTA
- KLARINETEA
- SAXOFOIA
- TRONPETA
- TRIKITIXA
- KOROA